

ARAZO EGOERA

GAUR HARRITIK UR, BAINA BIHAR?

ARLOA: Biologia eta Geologia

MAILA: DBHko 2. zikloa

TESTUINGURUA

Prentsan honako titular hau aurkitu duzu:



ARAZOA

Titular honek, gaurkotasun handiko gaiak jorratzeaz gain, gizartean eragin zuzena duten hainbat alor uztartzen ditu. Hala ere, informazio zehatzagorik gabe kostatzen da erabat ulertzea.

XEDEA

Geologiari buruzko ezagutzak ikasleek dituzten aurretiko jakintzekin lotuz, hidrogeologiaren alorra jorratzea, gizartearen ur hornidura beharrei nola erantzuten dien jabetzeko.

HELBURUAK

- Tokian tokiko geologiaren ezaugarriak identifikatu eta egitura horien sorrera ulertzea.
- Geologiak uraren ibilguan nolan eragiten duen aztertzea.
- Sistema karstikoen sorrera eta haien lurpeko uren ibilgua egoki interpretatzea.
- Orografiak lur gaineko ur ibilgua nola baldintzatzen duen identifikatzea.
- Hidrologia ezagutu eta gizarteak horri esker jasotzen dituen onurak identifikatzea.
- Kalitatezko urak zein ezaugarri izan behar dituen definitzea.
- Hidrogeologia sistema konplexu horren ezaugarriak barneratu eta kalte egin diezaioketen ekintzak identifikatzea.
- Gizarte ongizateari begira, arriskuak identifikatu eta sistema hidrogeologikoak egoera onean mantentzeko beharraz sentibilizatzea eta hori lortzeko proposamenak garatzea.

ATAZA

Titularrean aipatzen diren kontzeptuetan sakonduz, ikuspuntu guztiak barneratzen dituen diagnostiko bat garatu eta herriko alkateari (edo beste ordezkari bati) aurkezteko bilera bat prestatu.

JARRAIBIDEAK

- Gaia hobeto ulertzeko, Naturan hezten proiektuak arazo egoera honetan proposatzen dituen **bideoak ikusi**.
- Arazo egoera aurkeztu ondoren, ikasleak 3-4 pertsonako taldetan banatuko dira. Lantalde bakoitzak azpimarraturiko kontzeptu zehatz baten inguruko **lanketa egingo** du, eta gero beste taldeei horren berri emango diete. Besteak beste, honako lanketa hauek egin daitezke:
 - Eskualdeko geologia aztertu eta arroka mota ezberdinak identifikatu. (Baliabidea: [Goeuskadin](#), Oharra: geruzen zerrendan Ingurumena aukeratu)
 - Arroka mota horiek noiz eta nola sortu ziren ikertu.
 - Urak kareharrietan eragiten duen higadura kimikoa eta horren ondorioak aztertu. ([baliabidearen esteka](#))
 - Lur azpiko urak gainazalera ateratzen diren puntuak identifikatu. (Aralarkoak: [Mapen](#) atalean)
 - Geologiak tokian tokiko orografian eta, ondorioz, lur gaineko ur ibilguan duen eragina aztertu.
 - Lur azpiko eta lur gaineko ur ibilguen arteko lotura ikertu.
 - Aurrez aipaturiko elementu eta ezaugarriak eskualde mailako leku zehatzekin erlazionatu.
 - Litologia mapak, topografia mapak, toponimoak, etab. aztertu. (Baliabidea: [Goeuskadi](#))
 - Gizartearen ur hornidura beharrak identifikatu.
 - Eskualdeko ur hornidurako guneak identifikatu. (Baliabidea: [Ura agentzia](#))

Naturan hezten

- Ur kalitate irizpideak zehaztu eta hau bermatzeko beharraz hausnartu. (Baliabide posible bat)
- Sistema osoari buruzko **ikuspegi integral bat lortu** eta **mehatxu posibleak identifikatu** (azpiegiturak eraikitzea, isuri kutsakorrak, etab.).
- Sistema horiek zaintze aldera, lurralde plangintzarako **proposamen arrazoituak garatu**.
- **Diagnostiko bateratu bat sortu** eta alkateari egiteko **aurkezpena prestatu**.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).
- **Ikasleek natura eta haren elementuak ezagut eta maita ditzaten, ezinbestekotzat jotzen dugu arazo egoera bakoitzaren ostean gaiarekin erlazioa duen irteera bat egitea.**